

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

INGURUGIRO GAJETARAKO IKASTEGIA

Gasteizko Udalaren Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren Kontseiluaren 2021eko urriaren 29an hartutako erabakiaren laburpena, bertan Ikastetxera joateko mugikortasun aktibo eta autonomia sustatzea helburu duten ekintzak gauzatzeko diru-laguntza deialdia eta oinarriak onartzen dira

BDNS(Identif.): 595970

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/595970>).

Lehen. Onuradunak

Betebehar hauek betetzen dituzten ikastetxeek edo ikasleen familia-elkarteek (IFE) eskuratu ahal izango dute diru-laguntza:

- Ikastetxea Gasteizko udalerrian kokatua egotea edo, gutxienez, ikasleen ehuneko 60 udalerrian erroldatua egotea.
- 2021eko irailetik 2022ko ekainera bitartean ikastetxera joateko mugikortasun aktibo eta autonomia bultzatzeko proiektu bat garatzen aritea edo garatzeko asmoa izatea.
- 2021eko irailetik 2022ko ekainera bitartean jarduera horiek egiteak gastuak ekarri izana, fakturen bitartez egiaztatu daitezkeenak, mugikortasun aktibo eta autonomoaren sustapenari estu-estu lotuak.

Bigarrena. Helburua

Gasteizko ikastetxeei edo ikasleen guraso-elkartei laguntza ekonomikoa ematea da diru-laguntza deialdi honen xedea, hain zuzen ere 2021eko irailetik 2022ko ekainera bitartean ikastetxera joateko mugikortasun aktibo eta autonomia sustatzea helburu duten ekintzak gauzatzeko.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Gasteizko Udalaren Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren Kontseiluak 2021eko urriaren 29an onartu ditu eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiari 10.000,00 euroko aurrekontua egokitu zaio.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea deialdi honen laburpena ALHAOn argitaratzen denetik 2022ko uztailaren 8a arte izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 3a

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren lehendakaria
ANA OREGI BASTARRIKA